

ORO HAR 2019KO AURREKONTUEN BETETZE MAILA ETA BEREZIKI AURREKONTU PARTE-HARTZAILEETATIK ERATORRITAKO PARTIDENA OSO BAXUA DELA ETA KEZKATUTA EAJ

- Etsipenduta azaldu dira jeltzaleak parte-hartze prozesutik eratorritako partiden betetze maila ikusita “prozesuari gure babes osoa eman genion eta publikoki konprometitu ginen eta engainatuta sentitzen gara, eta herritarrak ere hala sentituko direla pentsatzen dugu”.
- “Aurrekontuetan jasotzen diren konpromisoak bete beharrekoak dira, bereziki herritarren ekarpenak badira eta beharrezkoa da denborarik galdu gabe lanari gogor ekitea Oñati atzean gera ez dadin”

Oñatiko 2020rako udal aurrekontuak abenduko osoko bilkuran onartzea dago aurreikusita eta udal gobernuak aurkeztu berri dio EAJri bere aurrekontu proposamena. Jeltzaleak hasiak dira dagoeneko aurrekontuaren lanketan, besteak beste, orain aste batzuk iragarri zuten bezala, herritarren ekarpenekin edota hauteskunde programan jaso zituzten proposamenekin. Baina 2020ko aurrekontuetarako ekarpenak egin aurretik, 2019ko aurrekontuen inguruko hausnarketa egitea beharrezkotzat dute jeltzaleek “atzeak erakusten baitu aurrea nola dantzatu” .Urtea ixtear den honetan, 2019ko aurrekontuen exekuzio maila oso baxua dela adierazi dute jeltzaleek “beraz, 2019ko aurrekontuetan jasotako konpromiso asko ez dira beteko” azaldu dute. “Maiatzera arte egon zirenek ezer gutxi egin zuten eta ekainetik aurrera daudenek ere ez dute ezer askorik egiten jakin” azaldu dute EAJko kideek.

Herritarren parte-hartzearen bidez erabakitakoak egin gabe

Bereziki larria iruditzen zaie jeltzaleei, orain aste batzuk esan zuten bezala, herritarrekin, parte-hartze prozesu baten bidez erabakitako partiden betetze maila baxua. “Uste dugu herritarrak engainatuta sentituko direla prozesuak eman dituen emaitzekin, gu behintzat hala sentitzen gara” azaldu dute EAJko kideek. “Behin eta berriz eskatu izan dugu herritarren parte-hartzearekin aurrekontuak osatzea eta joan den urtean prozesu hori zabaltzea oso pozgarria izan zen guretzat” jarraitu dute. “Prozesuari gure babes osoa eman genion eta publikoki konprometitu ginen” diote jeltzaleek “baina momentu honetan, parte-hartze prozesutik eratorritako partiden betetze maila ikusita, erabat etsipenduta gaude”. EAJk azaldu duenez, aurten egitekoak zirenetatik gutxi batzuk jarri dira martxan eta gutxi horien betetze maila oso baxua da, adibidez, erabilera publikoko komun irisgarriak jartzeko 110.0000 euroko partida jarri zen eta horietatik 3.748,87 euro baino ez dira erabili, bide segurtasuna hobetzeko zebra-bideak argitzeko 20.000 euroko partidatik, 2.262,37 euro soilik eta Olakua auzoko kirol pista edo kantxa hobetzeko 47.000 euroko partidatik 8.040,20 euro. Beste batzuen kasuan ez da ezertxo ere egin, bizikletentzako aparkaleku estaliak egiteko 60.000 euroko partidak zeron jarraitzen du eta baita herriko hainbat puntutan hondakina gaika botatzeko launako zakarrontziak jartzeko 13.500 euroko partidak ere. **2019rako herritarren parte-hartzearen bidez jasotako partiden betetze maila, beraz, azaroaren 27ko exekuzio datuen arabera, benetan baxua da, %6 ingurukoa.**

Hala, 2020rako udal aurrekontu proposamenean sartu ditu udal gobernuak parte-hartze prozesuan 2020rako aurreikusitako zenbait ekarpen, besteak beste, Ugarkaldeko haurren jolas parkea estaltzea edota “Emakumeen Etxea” martxan jartzeko herri mailako diagnostikoa egitea, baina, jeltzaleek azaldu dutenez **“guk daukagun informazioaren arabera, ez dira sartu parte-hartze prozesuan 2020rako jaso ziren beste zenbait proposamen,** esaterako, kartelak, pankartak edo pintadak horretarako egokitutako tokietatik kanpo ez egin edota jartzeko sentsibilizazio kanpaina, aire libreko zine emanaldiak edota zaborra lurrera ez botatzeko kontzientziazio kanpaina. 2019an bete ez direnekin ez dakigu zer pasako den, 2020ko aurrekontuan ez baitira jaso”.

EAJk dioenez, aurrekontuen betetze maila baxua ez da aurrekontu parte-hartzaileen partidatara mugatzen. Gobernuak berak proposatutakoak edota oposizioak egindako ekarpenetatik txertatukoekin ere antzera pasatzen da, hala nola, San Lorentzoko 9 areako lanak, landetako etorbideak, paisaia planak, Txiki txokoko inbertsioak, San Martin hariztiaren plana, Turismo Plan Estrategikoa **edota Olakua Olapotoko lanak**, “dauzkagun datuen arabera, azaroa amaierako datuak, alegia, 2019ko aurrekontuen exekuzio maila %33 inguruan dago, hau da, hartutako konpromisoetatik heren bat baino ez da bete” azaldu du Ainhoa Galdosek.

Horiek horrela, jeltzaleek azaldu dute “guk gure konpromisoari eutsiko diegu, aurrekontuei ekarpenak egingo dizkiegu, egoeraren jarraipena egingo dugu eta elkarlanerako prest egongo gara, baina espero dugu udal gobernuak ere bere konpromisoari eustea, berea baita udala kudeatzeko ardura”. “Aurrekontuetan jasotzen diren konpromisoak bete beharrekoak dira, bereziki herritarren ekarpenak badira eta beharrezkoa da denborarik galdu gabe lanari gogor ekitea Oñati atzean gera ez dadin” adierazi du Ainhoa Galdos bozeramaile jeltzaleak amaitzeko.

EAJ-PNV MUESTRA SU PREOCUPACIÓN ANTE EL BAJO NIVEL DE EJECUCIÓN DE LOS PRESUPUESTOS DE 2019 EN GENERAL Y DE LAS PARTIDAS PROCEDENTES DEL PROCESO PARTICIPATIVO LLEVADO A CABO EL PASADO AÑO EN PARTICULAR

- **Los jeltzales se muestran decepcionados con el bajo nivel de ejecución de las partidas propuestas en el proceso participativo “dimos todo nuestro apoyo al proceso y nos comprometimos públicamente por lo que nos sentimos engañados y pensamos que la ciudadanía también”.**
- **“Los compromisos que se recogen en los presupuestos se deben cumplir, especialmente si son propuestas de la ciudadanía, y es necesario ponerse a trabajar sin perder más tiempo para que Oñati no se quede atrás”.**

Se prevé aprobar los presupuestos municipales para 2020 en el pleno ordinario de diciembre y el equipo de gobierno ha presentado recientemente su propuesta al grupo municipal de EAJ-PNV. Como ya anunciaron hace varias semanas, los jeltzales ya están trabajando sus propuestas, incorporando en las mismas proyectos de su programa y peticiones de la ciudadanía. No obstante, antes de presentar dichas propuestas, han creído necesario realizar una reflexión sobre los presupuestos de 2019, ya que, según los jeltzales “es importante saber de donde venimos para saber a donde vamos”. EAJ-PNV ha señalado que, casi a punto de cerrar el ejercicio, el nivel de ejecución de los presupuestos de 2019 es muy bajo “no se han cumplido, por tanto, muchos de los compromisos adquiridos en los presupuestos de 2019”. “Quienes estuvieron al frente del ayuntamiento hasta mayo hicieron bastante poco y quienes están desde junio tampoco han sabido hacer mucho” han afirmado.

Lo decidido por la ciudadanía a través del proceso participativo pendiente

Como ya anunciaron hace varias semanas, los jeltzales creen especialmente grave el bajo nivel de ejecución de las partidas que provienen de las propuestas ciudadanas del proceso participativo. “Creemos que la ciudadanía se sentirá engañada con los resultados” han afirmado los miembros de grupo municipal de EAJ-PNV. “Nosotros hemos pedido incesantemente hacer partícipe a la ciudadanía de la confección de los presupuestos municipales y la puesta en marcha del proceso participativo fue una gran alegría para nosotros” han continuado. “Dimos todo nuestro apoyo al proceso y nos comprometimos públicamente” han afirmado los jeltzales, “pero viendo el nivel de ejecución de dichas partidas, nos sentimos muy decepcionados”. Según han explicado, de las propuestas incorporadas para este año, solo unas pocas se han puesto en marcha e incluso en esas pocas en nivel de ejecución es muy bajo, por ejemplo, de la partida de 110.000 euros prevista para poner baños públicos accesibles, solo se han utilizado 3.748,87 euros, de la partida de 20.000 euros para iluminar los pasos de peatones para aumentar la seguridad de los mismos, se han gastado 2.262,37 euros, de la partida de 47.000 para mejorar la pista de deportes de Olakua solo se han ejecutado 8.040,20 euros. En el caso de otras partidas, no se ha hecho nada y las partidas siguen a cero, entre otras, la partida de 60.000 euros para cubrir aparcamientos de bicis o la partida de 13.500 euros para colocar papeleras selectivas en diferentes puntos del municipio. “Según los datos de que disponemos, la ejecución presupuestaria a fecha de 27 de noviembre, el nivel de ejecución de las partidas procedentes del proceso participativo es, por tanto, sumamente bajo, en torno al 6%” han afirmado.

Así las cosas, el equipo de gobierno ha incorporado a los presupuestos de 2020 algunas de las partidas propuestas en el proceso para ese año, la partida para cubrir el parque infantil de Ugarkalde o la partida para realizar un diagnóstico para poner en marcha la Casa de las Mujeres, “pero, según la información que contiene la propuesta que nos ha hecho llegar, ha omitido otras propuestas ciudadanas que también

se debían incorporar al presupuesto de 2020, como la campaña de sensibilización para evitar que se pongan carteles y pancartas fuera de los espacios habilitados para ello, las proyecciones de cine al aire libre o la campaña de concienciación para que no se eche basura al suelo. Las que no se han ejecutado el 2019 no se han incorporado al presupuesto de 2020, por lo que no sabemos qué pasará con ellas”.

Según EAJ-PNV, el bajo nivel de ejecución de los presupuestos no se limita a las partidas de los presupuestos participativos, ya que pasa algo similar con las partidas del propio gobierno municipal y de las incorporadas a petición de la oposición, por ejemplo, los trabajos del área 9 de San Lorenzo, los caminos rurales, los planes paisajísticos, las inversiones en el Txiki Txoko, el plan para el robledal de San Martín o los trabajos en Olakua Olapoto, “según los datos de finales de noviembre de los que disponemos, el nivel de ejecución ronda el 33%, es decir, sólo se han cumplido una tercera parte de los compromisos adquiridos”.

Así las cosas, los jeltzales han afirmado que “mantendremos nuestros compromisos, realizaremos propuestas a los presupuestos y realizaremos un seguimiento y nos mantendremos siempre abiertos a la colaboración, pero esperamos, asimismo, que el equipo de gobierno también lo haga, ya que, a él le corresponde la responsabilidad de la gestión municipal”. “Los compromisos que se recogen en los presupuestos se deben cumplir, especialmente si son propuestas de la ciudadanía, y es necesario ponerse a trabajar sin perder más tiempo para que Oñati no se quede atrás” ha concluido la portavoz jeltzale Ainhoa Galdos.